

Heri Aldizkaria

Otamotz

1999ko urria 51. alea



QUEMALIZABOEN
ZINTZU
MINTZU
ELKARTEA

Iparragirre pastoralala Urdiñarben

Mineralogia eta paleontologiari buruzko

XII. astearen egitaraua

Urriak 23, larunbata:

*Txango mineralogikoa Berastegira. Plazaolako meategi-ko trenaren ibilbidea egingo da eta bertako meategi batean sartzeko aukera izango da.

Urriak 25, astelehena:

*Luis Ignacio Vieraren hitzaldia: "Euskal Herriko historia geologikoa (450 milioi urtetako bidaia)"

Kultur Etxean, arratsaldeko 7,30etan.

*Kultur Etxeko Mineral eta fosilen museoa.

*Erakusketa monografikoa: ambarra (José Querolen bilduma) mineral eta fosilen museoan.

*Erakusketa monografikoa: karramarro fosilak. Kultur Etxeko 1. solairuan.

*Amalur, naturaren bitxikeriak. Javier Agudoren bilduma ikusgai Juan de Lizarazu aretoan.

(Erakusketen ordutegia: arratsaldeko 6etatik 9etara).

Urriak 26, asteartea:

*Luis Ignacio Vieraren hitzaldia: "Euskal Herria eta dino-saurioak (duela 120 milioi urte)". Kultur Etxean, arratsaldeko 7,30etan.

*Kultur Etxeko Mineral eta fosilen museoa.

*Erakusketa monografikoa: ambarra (José Querolen bilduma) mineral eta fosilen museoan.

*Erakusketa monografikoa: karramarro fosilak. Kultur Etxeko 1. solairuan.

*Amalur, naturaren bitxikeriak. Javier Agudoren bilduma ikusgai Juan de Lizarazu aretoan.

(Erakusketen ordutegia: arratsaldeko 6etatik 9etara).

Urriak 27, asteazkena:

*Luis Ignacio Vieraren hitzaldia: Itsasazpiko labak - Kantauri itsasoaren irekitzea - Euskal Herria azaleratzea. Kultur Etxean, arratsaldeko 7,30etan.

*Kultur Etxeko Mineral eta fosilen museoa.

*Erakusketa monografikoa: ambarra (José Querolen bilduma) mineral eta fosilen museoan.

*Erakusketa monografikoa: karramarro fosilak. Kultur Etxeko 1. solairuan.

*Amalur, naturaren bitxikeriak. Javier Agudoren bilduma ikusgai Juan de Lizarazu aretoan.

(Erakusketen ordutegia: arratsaldeko 6etatik 9etara).

Urriak 28, osteguna:

*Luis Ignacio Vieraren hitzaldia: "Paisajearen higadura eta modelatzea (40 milioi urte eskulturaren)"

Kultur Etxean, arratsaldeko 7,30etan.

*Kultur Etxeko Mineral eta fosilen museoa.

*Erakusketa monografikoa: ambarra (José Querolen bilduma) mineral eta fosilen museoan.

*Erakusketa monografikoa: karramarro fosilak. Kultur Etxeko 1. solairuan.

*Amalur, naturaren bitxikeriak. Javier Agudoren bilduma ikusgai Juan de Lizarazu aretoan.

(Erakusketen ordutegia: arratsaldeko 6etatik 9etara).

Urriak 29, ostirala:

*Harri, fosil eta harribitxien XII. aretoa: salerosketa, trukaketa, lehiaketak... Ederrena pilotalekuan.

*Mineralogia eta paleontologia parkea. haurrentzat Gernikako Arbola plazan: eskalada, meategia, urre-bilaketa, dinosaurio erraldoia...

*Kultur Etxeko Mineral eta fosilen museoa.

*Erakusketa monografikoa: ambarra (José Querolen bilduma) mineral eta fosilen museoan.

*Erakusketa monografikoa: karramarro fosilak. Kultur Etxeko 1. solairuan.

*Amalur, naturaren bitxikeriak. Javier Agudoren bilduma ikusgai Juan de Lizarazu aretoan.

(Ordutegia: goizeko 10etatik 1etara eta arratsaldeko 3etatik 8etara).

Urriak 30, larunbata:

*Mineral, fosil eta harribitxien XII. aretoa Ederrena pilotalekuan.

*Mineralogia eta paleontologia parkea Gernikako Arbola plazan.

*Kultur Etxeko Mineral eta fosilen museoa.

*Erakusketa monografikoa: ambarra (José Querolen bilduma) mineral eta fosilen museoan.

*Erakusketa monografikoa: karramarro fosilak. Kultur Etxeko 1. solairuan.

*Amalur, naturaren bitxikeriak. Javier Agudoren bilduma ikusgai Juan de Lizarazu aretoan.

(Ordutegia: goizeko 11etatik 2etara eta arratsaldeko 5etatik 9etara).

Urriak 31, igandea:

*Mineral, fosil eta harribitxien XII. aretoa Ederrena pilotalekuan.

*Mineralogia eta paleontologia parkea Gernikako Arbola plazan.

*Kultur Etxeko Mineral eta fosilen museoa.

*Erakusketa monografikoa: ambarra (José Querolen bilduma) mineral eta fosilen museoan.

*Erakusketa monografikoa: karramarro fosilak. Kultur Etxeko 1. solairuan.

*Amalur, naturaren bitxikeriak. Javier Agudoren bilduma ikusgai Juan de Lizarazu aretoan.

(Ordutegia: goizeko 10etatik 2etara eta arratsaldeko 5etatik 9etara).

Azaroak 1, astelehena:

*Mineral, fosil eta harribitxien XII. aretoa Ederrena pilotalekuan.

*Mineralogia eta paleontologia parkea Gernikako Arbola plazan.

*Kultur Etxeko Mineral eta fosilen museoa.

*Erakusketa monografikoa: ambarra (José Querolen bilduma) mineral eta fosilen museoan.

*Erakusketa monografikoa: karramarro fosilak. Kultur Etxeko 1. solairuan.

*Amalur, naturaren bitxikeriak. Javier Agudoren bilduma ikusgai Juan de Lizarazu aretoan.

(Ordutegia: goizeko 10etatik 2etara eta arratsaldeko 5etatik 9etara).



Hilabete honetako argazkia ezin esango da zaharra ez denik. 20-30 hamarkadakoa da, herriko lagun batzuk automobil eta guzti zezenetara gustura asko joan baino lehenago ateratakoa. Automobilaren jabea txapela buruan duen Gracián Alberdi da eta gidariaren laguntzaz zezenetara eraman behar dituen neskek hona-koak: Justa Mendizabal, Enriqueta Telleria, Candida Zumalakarregi eta Hiru-Txikiko Milagros eta Agueda González ahizpak. Neskek zezenetara joateko "manola" eran jantziak daudela ikus daiteke. Izan ere, garai haietan autoan bidaiatzeko aukera izatea ez zen txantxeta-koa izango! Hala ere, alde batetik bestera eramaten zituen gidariaren izena jakitea ez dugu lortu. Esker txarrekoak!



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkartea, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel:943725775 **koordinatzailea:** Asier Zaldua **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Aintzane Arizmendiarieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Jonmikel Insausti, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Marian Toledo, Asier Zaldua. **Diseinua:** Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Inprimategia:** GOI DESIGN - Zumarraga **Lege Gordailua:**SS-742/96 **ISSN:**1136-7318 Tirada:2.000 ale. **Edizio digitala:** <http://www.geocities.com/Athens/Delphi/2202> **Otamotz** aldizka-riak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga

Areizaga, 3 URRETXU tel:722599

MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan



Secundino Esnaola, 16 B
Tel: 943 72 16 63
ZUMARRAGA

Montajes e Instalaciones Electricas

HERCE
Electricistas, M. E.

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta, 4 ☎943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi ☎ 943 72 42 66
☎ Mugikorra: 919 442 617
20700 URRETXU



BAPRI
ANIMALIADENDA

Txoriak, arrainak, katuak, dordokak

Urdaneta, 3 ☎ 72 61 13
ZUMARRAGA




Legazpi, 5
☎943 726274
ZUMARRAGA



Oskorri eta Urretxuko herriak grabatutako diskaren aurkezpena

Hilaren 13an Oskorri eta Urretxuko herriak ekainaren 26ko ekitaldi gogoangarrian grabatutako diska aurkeztu zen Urretxuko udaletxean. Hurrengo bi egunetan Euskal Herriko hiri garrantzitsuenetan ere aurkezpenak egin ziren arren, lehen aurkezpena Urretxun izan zen Oskorriko lagunen borondatez. Udaletxeko ekitaldian Oskorriko kideak, Pello Gonzalez alkatea eta Jon Aldama kultura zinegotzia izan ziren hitzlarri, baina ez ziren bakarrik izan, udaletxeko areto nagusira kontzertuan parte hartutako lagun ugari hurbildu baitzen.



Pello Gonzalez alkatea Oskorriko partaideei eta kontzertuan parte hartu zuten herritarrei eskerrak emanez aurkezpenari hasiera eman zion. Ondoren, Natxo de Felipek diskaren nondik-norakoak azaldu zituen. Bere esanetan diska honek Iparragirreren filosofia jarraikiz, herrikoitasuna du ezaugarri nagusi. Natxok soinuarekin zein diskaren aurkezpenarekin oso gustura gelditu direla esan zuen. Izan ere, diskaren itxura oso zaindua dago: ehun orrialde inguru dituen liburu bat da eta azalaren zein kontrazalaren barrualdean kontzertua biltzen duten bi diskak daude. Ehun orrialde horietan kontzertuko abesti guztien partiturak eta abestien letrak biltzeaz gain, ekainaren 26ko gauean Urretxun bizi izan zen giroa biltzen duten argazki ugari ere badaude.

Diskaren aurkezpenari amaiera emateko, Oskorriko lagunek kontzertuan parte hartu zuten musika talde ezberdinetako ordezkariak diska bana oparitu zieten. Zuek ere diska eskuartean izan nahi baduzue, jakin jadanik salgai dagoela herriko diskadendetan.

Alkoholik gabeko saioak Golden dantzalekuan

Urriaren 3tik urte bukaera bitarteko igandeetan Golden dantzalekuan alkoholik gabeko saioak antolatuko dira 12 eta 16 urte bitarteko gazteentzat. Ideia dantzalekuko jabearena izan zen eta Urretxu eta Zumarragako udalei proposamena aurkeztu ondoren, hauek aztertu eta hiru hilabetez frogatu egitea erabaki dute. Lehenago ere elkarte autonomoko herri ezberdinetan antzeko ekimenak aurrera ateratzen saiatu dira, baina gehientsuenek porrot egin dute.

Egun Eibarren antzeko ekimena arrakastatsua izaten ari da eta hau da gure bi herrietan aurrera atera nahi duten eredu. Helburua adin honetako gazteei aisialdian alkoholaren kontsumoa ez dakarren denborapasa eskaintzea da. Horretarako Golden dantzalekuan sarrerarekin batera alkoholik gabeko freskagarri bat eta

euren gustuko musika eskaintzen zaie igandeetan arratsaldeko 5etatik iluntzeko 9etara. Dantzalekuko arduradunak antolaketaz arduratzen dira eta udalek dantzalekutik kanpoko ordenua zaintzeaz gain dantzalekuari diru-laguntza eskaini diote ekimena aurrera ateratzeko.

Irailaren 30ean dantzalekuko arduradunak eta udaleko ordezkariak alkoholik gabeko dantzalekuaren nondik-norakoak biltzen zituen konbenioa sinatu eta ekimenaren aurkezpena egin zuten. Udal-ordezkarien esanetan helburu nagusia prebentzioa da eta inguruko tabernei ere ekimenaren berri emango zaie. Udaltzainak taberna hauetan 18 urtetik beherakoei alkohola ez saltzea zaintzeaz arduratzen ari dira eta edanda dagoenari ez zaio dantzalekura sartzen utziko.

Sasieta Mankomunitatearen aurtengo datuen laburpena

Sasieta mankomunitateak aurtengo urtarrila eta abuztua bitarteko zabor biltzearen datuak prestatu eta iazkoekin alderatu ditu. Aurreko urteetan zaborren sorkuntza zein birziklapenak



goranzko joera ahula izan badu ere, aurtengo hauek nabarmen gehitu dira.

Goierriko zaborren sorkuntza %13a igo da aurtengo eta hau benetan kezkatzekoa da, birziklapena %15etik %18,5era igo den arren, ez da nahikoa izan sortu den zabor guztiari aurre egiteko. Garbi esateko, aurtengo gure zabortegian iaz baino zabor gehiago jaso da.

Aurtengo merkatal jatorriko kartoiaren bilketa %180 hazi da eta hau oso datu baikorra da. Paperraren birziklaketa ere %52ra igo da eta jada Europa mailan hiru herrialde soilik daude gure aurretik. Ontzien bilketa ere gora egin du eta beiraren bilketa, berriz, pixka bat behera egin du eta jada ez gara beira bilketan Europan nagusi. Jeitsiera honi aurre egiteko, Sasieta mankomunitateak edukiontzi gehiago jarri behar dituzte.

Aipatu bezala, datu ezkor nagusia geroz eta zabor gehiago sortzen dugula da. Honen arrazoiak daramagun bizimodua, kontsumo ohitura berriak eta ekonomiaren momentu ona dira Sasieta mankomunitatearen ustez. Egun faktore hauen pisua hain handia da, non betiko sentsibilizazio sistemak balioezinak gertatu diren.

Etxaburu, etxeko sukaldeak nagusi

Santa Barbarara bidean dagoen merendaleku hau oso ezaguna da bi herriotan. Nork ez du kuadrilako afariren bat Etxaburun egin, edo menditik bueltan etxera bidean hamaietako ederra egin edo besterik ez bada salda beroa hartu. Institutuan ikasitakoek ere atsedean orduko tripa zorriak direla eta bokadiloak ere bertan erosi ahal izan dituzte. Eta karta-joko zaleek musaldi ederrak egiten dituzte jokoan ari diren bitartean edaten duten ardo botila saritzat jarrita. Azkenik, badira familiako ospakizunak, nola ez, ondo jan eta edanez Etxaburun ospatu dituztenak ere.

Etxe honen arrakastaren arrazoiak argi eta garbi dago. Etxeko moduko janaria da, modu onean eta etxetik kanpo. Betiko janaria da, ondo ezagutzen duguna baina askotan horiek ditugu gustuko. Baina arrakastari eusteko egunero eta etengabe lan egin behar da. Gauza asko eta asko dira zaindu beharrekoak eta are gehiago hainbeste bezero dituen merendaleku batean. Horietako bat bezeroarekin izaten den tratua da, eta honen moduko leku herriko batean euskaldunei zerbitzua euskaraz eskeintzen saiatzen ari dira Etxaburukoak. Hori dela eta, Zintzo Mintzorekin batera lanean ari dira barne dokumentazioa euskaratzen, hau da, faktura, bisita txartela, karta berria... euskaratzen.


Beraz, hurrengoan arraultza pare bat txorizoarekin edo kazuelitaren bat jate-ra goazenean beti bezala euskaraz hartuko gaituzte eta agiriak ez ditugu erdaraz irakurri beharrik izango.



Ines, Itziar, Kizkitza eta Enkarni.

Hau irakurri ondoren lagunarteko afariren bat antolatzea bururatu bazaizu, hona hemen kontuan hartu beharreko zenbait datu.

- . Atsedean eguna. Asteazken arratsaldea
- . Jantokia 60 lagunentzako
- . Telefono zenbakia. 943.72.22.77



MASTER HEZKOR

Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena!

Prezio eta modeloetan aukera aparta

Urdaneta, 5 ☎ 72 41 31
ZUMARRAGA



Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13

Eskulanetarako eskaiola, pintura edo besterik behar baduzu zatoz hona



Ipeñarrieta, 4 ☎ 943 72 14 20
URRETXU



alejandro albisua
kirol gaiak

Soraluze 6
☎ 72 52 22
ZUMARRAGA

GUREA

Hurgintza



Bainurako altzariak
Gas instalazioak
Berogailuak
Bainuak...

Barrenkale 17- ☎ 72 12 67
20700 URRETXU

Ezkiotar bat Goenkalen

Gorka Igartua Ezkion jaio eta bizi den arren, batxilergo bitarteko ikasketak Urretxun burutu ditu eta bere lagun koadrila ere bertakoa du. Urretxu-Zumarragako ikastolan eta Garaialde lizeoan ikasketak burutu ondoren, egun Elgoibarren ari da ikasten. Nahiz eta sekula antzeppen munduan aritu gabea izan, 1000. kapitulua grabatu duen Goenkale telesailerako casting batera aurkeztu zen eta azken asteotan "Guti"ren paperean lanean ikusi ahal izan dugu. Etorkizunean aktore lanetan arituko den argi ez duen arren, aurrerantzean telebistan ikusteko aukera izango dugu.

Nolatan erabaki zenuen castingera aurkeztea?

Arte dramatikoa ikasten dutenek casting hauen berri errazago izaten dute, beraiengana zuzentzen baitira berri emanaz. Nire lagun batzuk casting honetara aurkeztea pentsatu zuten eta oporretan nengoenez, ni ere goiza pasatzera joan nintzen. Lagunak eraman nituen eta bertan nengoela nik ere frogatzea erabaki nuen. Handik bi egunetara edo papera eman zidatela esanez deitu zidaten.

Zer eskatu zizuten frogetan?

Bi edo hiru sekuentzia ikasi behar genituen ordu erdian eta arduradunek aukeratzen zuten beste bikote batekin batera antzeztu behar genuen. Hau egin ondoren norberari buruzko galderak egin zizkiguten. Gidoiak bi edo hiru hilabetetako aurrerapenez idatziak zituztenez, oso argi zituzten antzeztu beharreko pertsonaiaren ezaugarriak eta zer nolako pertsona bilatzen zuten. Nireaz gain beste bost pertsonaia ere sartu dituzte eta hauek nolakoak izan behar zuten ere finkatuta zuten, nire ustez aurkeztu ginenon itxurari ere garrantzia eman zioten.


Lagun asko aurkeztu al zintzen?

Esan zidatenez uztailan aritu dira casting-ak egiten. Gu hirugarren astean joan ginen eta casting-aren epea amaitu ondoren eman zidaten erantzuna. Esan didatenez frogatzea oso lasai egin nuelako eta

espontaneo aritu nintzelako hautatu ninduten. Egia esan ia pentsatu gabe eta bate-re presiorik babe joan nintzen eta gidoian jartzen zuten ia ezer ez nuen esan.

Zer ezaugarri ditu zure pertsonaiak?

Gidoiak aurretik prestatuak daude. Lehenengo egunetan ez naiz gehiegi azaldu, pertsonaiaren aurkezpena egiteko soilik. Ondorengo asteetan jada pertsonaiari gauzak gertatzen hasiko zaizkio, baina ez dakit ziur zer. Pertsonaia errebelde xamarra da eta beste ikastetxe batetatik Arraldekoa doa, musika talde batetako baxua da eta Sobia tabernako Mikel gure taldeko managerra da. Musika jotzen azal-



du beharko naizela suposatzen dut, baina musika jotzen ez dakidanez play-backa izan beharko da. Ez nuke esango pertsonaiarekin identifikaturik sentitzen naizenik, baina paperean natural jokatzeko dut eta ez ditut nire ahotsa eta espresioak aldatzen.

Astean zenbat egunetan grabatzen duzu?

Astean asko jota hiru egunetan joaten naiz eta hilean zortzi egun. Pertsonaiak arra-

kasta badu, egun gehiagotan joan beharko dut lanera eta bestela ikusi egin behar. Hasieran pixka bat arraroa egin zitzaidan, ez bainaiz sekula antzezlanetan aritu eta gainera ez bainuen espero ni hartzea. Baina jendea oso jatorra da eta oso harreman ona dugu denon artean. Aktore batzuekin besteekin baino harreman estuagoa dut, grabaketa egunetan gehiagotan aritzen baikara elkarrekin. Batez ere gazteekin dut harremana.

Nolako izaten da grabaketa egun bat?

Astean behin Oriora joaten gara kanpoko sekuentziak grabatzera eta gainontzekoak Miramonen grabatzen ditugu. Etxera aste osorako gidoiak eramaten ditugu ikasi ditzagun. Grabaketa egunean gela batean entsaiu bat egiten dugu eta bertan zerbait ezberdin egin edo esan behar dugun esaten digute. Egunean 30 sekuentziak grabatu behar direnez, oso azkar lan egiten da eta ez dago akatsak egin eta erre-pikatzeke ia aukerarik. Gehien zaintzen dena hizkuntza da eta akats txikiak barkatzen dira. Egun berean atal ezberdinetako sekuentziak grabatzen ditugu. Nik uste nuen dena kontrolatuagoa egongo zela, baina bakoitzari berez ateratzen zaionari, inprobisazioari, lekua uzten zaio.

Esan al dizute noiz arte arituko zaren lanean?

Aldez aurretik pertsonaiak ez du telesaileratik desagertzeko unerik. Ikusleei galderak egiten dizkiete eta hauek gustukoak dituzten pertsonaiak aukeratzen dituzte. Erantzunen arabera pertsonaia ezberdinei protagonismoa eman edo kentzen zaie. Honetaz gain,

telesailaren arduradunek eguneroko lanean ere kontuan hartzen dute ondo edo gaizki lana egiten dugun.

Etorkizunean antzeppen lanean jarraitzea gustatuko al litzaizuke?

Oraingoz ez dakit. Ez dakit lana ondo egiten dudan edo ez, lehenengo ondo moldatzen naizen ikusi nahi dut. Jarraitzea eskeintzen badidate hartu egingo dut, aukera ona baita; baina, ez dut mundu honetan jarraitzeko asmo tinkorik.



Ainhoa beti horrelako zintzo aurpegia al duzu? Zuek izaten zarete okerrenak... **Zorionak** eta ondo ibili!



Amaia badakigu Beñatek egindako galdera batzuk zuk erantzun zenituela? Utzizozu gizajoari hitz egiten, sarjento! **Zorionak!**



Amaia lotsa ematen al dizu kamerari begiratzea? Mutilekin ere halako lotsatia al zara? **Zorionak!**



Urtebete beranduago ere **Armando** kantxa jarraitzen al duzu? Nolako egurra halako ezpala! **Zorionak!**



Candido zu al zara Miguel Boserren abestiko amante bandido? Bandido aurpegia baduzu behintzat... **Zorionak!**



Ebaristo txoria visto, kaskarrian pegau, buscando, buscando... denboria pasau! Hi haiz hi satelitea! **Zorionak!**



Esteban, argi ibili Zumardiko mus partidetan albokoak tranpa egiten iaioak dira eta! **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Zer **Irati**, ez al diguzu irrifarrerrik eskaini behar? **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna etxeko guztien partetik.




Joaquin hori al da ezkontza argazkian jarri beharreko aurpegia? Eman al dizu emazteak aurpegia alaitzeko arrazoirik? **Zorionak!**



Juani, zu bai emakume seria eta arduratsua! Baina argazkian alaitu ezazu pixka bat aurpegia... **Zorionak!**



Maikel ez ezak aingeru aurpegi hori jarri, legazpiarra izanda ez haiz fidatzekoa izango eta! **Zorionak** eta ondo pasa!



Maria etxekok ondo portatu al dira aurten? Merezki al dute urtebetetze bazkarira gonbidatzea? **Zorionak** eta ondo pasa.



Zeri begira ari zara **Maria Jesus?** Espainiako erregearen ama dirudizu! **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Migel Angel eta **Mikel** a ze paraa karakola eta barea! Oraingoan bai argi ibili zarete! **Mario** Condek CDS hartu eta politikan hasi behar dela jakin duzen bezain pronto traje berria erosi eta bere atzetik joan zarete! A ze pajarok! **Zorionak!**



Migel Angel eta **Mikel** a ze paraa karakola eta barea! Oraingoan bai argi ibili zarete! **Mario** Condek CDS hartu eta politikan hasi behar dela jakin duzen bezain pronto traje berria erosi eta bere atzetik joan zarete! A ze pajarok! **Zorionak!**



Oier, bihurrikeriaren bat egin eta amona **Maria** engainatzeko jarri al duzu zintzo aurpegi hori? **Zorionak!**



Oier txakurra beso artean duala gustura hago, baina aukeran nahiego neskarekin! **Zorionak!**



Rosi, zuretzat ere urteak aurrera doaz... zenbat bete dituzu aurten? **Zorionak** eta ondo ibili!



Tere, zu bai emakume alaia eta irrifartsua! Segi horrela urte askotan. **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna.



Herriko amona zintzoenari, bere biloben izenean bihotz-bihotzez, **Zorionak** **Paula!**




Txundoka-txundo ospa ezak urtebetetzea urdaiazpiko tortila janez (eta ardo ona edanez). **Zorionak!**



Mentxu eta **Jone**: betidanik zuen izenak zituen kartela Sekundino Esnaola kalean ikusi ondoren, azkenean badakigu zeintzuk zareten! Noiz jubilatu behar duzue David ipotxa? Nahiz eta ez den hazten, horrentzat ere urteak aurrera doaz! **Zorionak** eta pasa iezaguzue ipotxaren argazkia bere urtebetetze egunean.



Saul kataluniarra izanda, bertara gutxitan etorzen haizen arren ez diguk adarra joko: argazkikoa ez haiz hi! **Zorionak!**



RENEDO argazkiak

Jaunartzeak • Bataioak • Ezkontzak

Labeaga 52-54 F URRETXXU

☎ 725682 722292



MAPFRE

Aseguru etxea

S.Esnaola, 6 ZUMARRAGA

☎ 72 20 00 faxa: 72 24 00

LASKURAIN

**Emakumezko zein
gizonezkoentzat
arropa**

Iparragirre ibilbidea, 10 ☎ 943 72 11 05
Legazpi, 8 ☎ 943 72 07 57

ZUMARRAGA

nextlingo
school of English

Bertsolari Txirrita, 16 Iparragirre, 8
20017 Altza 20700 Zumarraga

Donostia Gipuzkoa

Tel./Fax: 943 39 43 77 Tel./Fax: 943 72 65 60

nextlingo@hotmail.com



ALTZARIAK

MERKA-UROLA

Mugitegi, 17 ☎ eta faxa 943 72 58 28
URRETXXU

Gipuzkoako Txapelketaren antolakuntza batzordeari

Gehientsuenok jakingo duzuen bezala, aurtengo Gipuzkoako Bertso Txapelketa herri artekoa izango da eta II. kanporaketako saio bat Pagoeta Antzokian izango da ostiral honetan gaueko 10etan. Urola Garaiko Bertso Eskolak

ere txapelketan parte hartzeko asmoa zuen, baina gaizki ulertu batzuk direla medio ezin izango dute. Hona hemen Bertso Eskolak Bertsozalea aldizkarira igorritako gutuna, bertan euren iritzia ezagutzera eman zuten.

Gipuzkoako Txapelketan Urola Garaiko taldearen parte ez hartzea dela eta, honako gogogeta hau egin dugu:

Garrantzitsua irizten genion gure taldea bertan egoteari. Gure eskualdeko bertsolaritzaren egoera ez da oso ona. Legazpin, adibidez, bertsolari zaharrenetatik gaur egungoetara 25 urte baino gehiagoko aldea dago eta tartean ez dago beste bertsolaririk. Hortik ondoriozta daiteke bertsozaletasunaren egoera. Hau honela izanik, eta aurtengo Gipuzkoako Txapelketarako taldea osatzea lortu genuelarik, guregan sortutako ilusioa handia zen, Urola Garaiko bertsozaletasunean eragingo zuela uste baikenuen.

Baina, nonbait, hutsegite bat egon da. Guk hala uste genuen arren, txapelketarako izena eman gabe genuen, eta honetaz jabetzerako kanporaketen zozketa eginda zegoen. Antolakuntza batzordearekin elkartu ginen konponbidea bilatzeko. Banan-bana beste talde batzuetan sartzea proposatu zitzaigun. Baina honek Urola Garaiko talderik ez egotea esan nahiko zukeenez ezetza eman genien, gure helburua ez baitzen banakoaren arrakasta. Gure aldetik egindako proposamena beste bat izan zen: kanporaketetako bat biren artekoa izan beharrean hiruren artekoa izatea proposatu genuen, noski, kanporaketa horretako beste biek onartzen bazuten. Batzordeak, aldiz, ez zuen egitura aldaketarik nahi izan. Halere, ez dugu uste aldaketa handirik eskatzen genuenik. Epe kon- tuak aipatu zizkiguten. Horietatik kanpo ibili ginela eta kito. Deialdia aspalditik egin zela eta ez zegoela zer eztabaidaturik.




Ohartzen gara batzordeak egin duen lanaz eta ez dugu hori gutxietsi nahi. Gure kasuan sentiberatasun falta izan duela uste dugu, ez baita egoera bera, esaterako, Hernanin edo gure eskualdean. Gu bertan egotea bertsolaritzaren onerako zela uste dugu, eta ahalegin handiagoa egin beharko litzatekeela gu bezalako txikiei parte hartzea errazteko. Gainera, bi hilabeteko epea aurretik izanik konpongarria zela uste dugu.

Bestalde, zortetik onena opa diogu Gipuzkoako Txapelketari. Bitartean, guk gure eskualdean lanean jarraituko dugu.

Gutun honen helburua horrelakoak berriro ez gertatzea eta Urola Garaian bertsoa bizirik dagoela adieraztea izan da. Besterik gabe, begirunez laster arte.

**Urola Garaiko
Bertso Eskola**

Ba al dakizu UTBn porno filmak botatzen hasi direla? Ikusten al dituzu? Zer iruditzen zaizu?




Josu Maroto

Kalean jakin nuen, koadrilen artean gai honi buruz nahikoa hitz egiten ari baita. Nire iritziz honelakoak botatzen hasi baino lehen programzioa hobetu beharko litzateke.



M° Dolores Bermúdez

Progmazioa ikusten ari nintzela jakin nuen pelikula hauek botatzen ari zirela. Ondo iruditzen zait pelikula hauek botatzea, gero norberak ikuste edo ez ikustea du. Hala ere, zertxobait ikusi dut eta ez zaizkit batere gustatu.




Ander Okariz

Aniak esanda jakin nuen pelikula hauek botatzen ari zirela. Zatiren bat ikusi dudan arren, ostiraletan kalera ateratzen naiz. Ondo iruditzen zait botatzea. Halere, hauek oso kalitate txarrekoak dira.



Xabier Etxeberria

Lagunartean negoela jakin nuen pelikula hauek botatzen ari zirela. Ondo iruditzen zait, denetik ikusi behar baita. Gainera, gustukoa ez baduzu katez aldatzeko aukera duzu.



Roberto Varela

Koadrilakoekin negoela jakin nuen. Gizonezkoak pelikula hauek botatzearekin ados agertu ziren. Nire etxean ez da UTB ikusten, baina ondo iruditzen zait pelikula hauek botatzea. Honela behintzat eskaintza zabaltzen da.



Aitor Mendizabal

Tabernan jakin nuen pelikula hauek botatzen hasi direla eta egia esan jendea dextente ari da gai honi buruz hitz egiten. Arraroa iruditzen zait herriko telebistan honelako pelikulak astero botatzea.

BIONA

AROSZTEGIA

Altzariak neurrira

☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:
En la edición de esta publicación colabora:

kutxa fundazioa
fundación

EDURNE

JANTZIDENDA

Piedad, 18 ☎ 943 721417 ZUMARRAGA

Lanbica

- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 72 36 52

Keros

Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak

Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61

BEEP frankiziak: Espainiako merkatuko lehen informatika katea orain Urretxun



Informatikak badu Urretxu eta Zumarragako herrien eskura BEEP denda bat, atek orain dela gutxi ireki dituena, lpeñarrieta kalean 4 zenbakian baxuan.

BEEP informatika-denda katea da. Une honetan 250 saltoki baino gehiago ditu. Hori dela eta, esan daiteke BEEP Estatuko informatikagintzan lehena dela, eta honek merkatuan estaldura handia izatea bermatzen du.

BEEPek duen lehentasunezko helburua informatika bezeroei hurbiltzea da, eta horretarako etengabe eskaintza eta promozio ezin hobeak egiten ditu.

Honetaz gain, BEEPeko bezeroek eskaintza zabala eta salneurri ezin hobeak aurki dezakete softwaren, eskanerretan, inprimagailuetan, ordenagailuetan.. eta abar.

Era berean, BEEP dendak munduko marka informatiko one-

nen banatzaileak dira: HEWLETT PACKARD, EPSON, TOSHIBA, OLIVETTI, MICROSOFT, COREL, CREATIVE. Izan ere, BEEPek bezeroari interesatzen zaizkion azken berrikuntza informatikoen eta ofimatikoen berri du. Horretaz

gain, BEEPek bere ordenagailu marka ere saltzen du, TAY© hain zuzen ere.


TAY© gaur egungo ekipoez osaturik dago eta benetan salneurri lehiakorretan eskaintzen da. Ekipo hauei testak eta kalitate kontrol zehatzak egiten zaizkie, 24 orduko testak egiten zaizkie ekoizpen prozesu zorrotz baten ondoren; honela bezeroaren behar zehaztetara egokitzen dira.

TAY© muntatze katean teknologia aurreratuena izaten da, kalitate handiena bermatzeko. Era berean, 3 urteko BEEP bermea eskaintzen dugu TAY ordenagailuetan, bai piezetan bai esku-lanean ere. Orain kalitate hori bermatzeko ISO 9002 kalitate ziurtagiria ere badugu.

Beraz, esandako guztia-gatik, urretxuar eta zumarragar guztiak gure BEEP denda bisitatzera gonbidatzen ditugu.



Adrenalina Hutsa



3 URTE
BERMEA
BEEP
PIEZETAN ETA
ESKU-LANEAN

BEEP KALITATEA
ISO 9002
BERMATUA



CREATIVE
CREATIVE LABS

W'98 BARNE



REDDIS - BLASTER

- ORAIN 64 Mb RAMekin ETA HIRU HILABETEZ INTERNET KONEXIOA DOHAINIK
- 450 prozesadorea Intel® Pentium® III
- RIVA TNT 2 32 Mb bideo tarjeta • Sound Blaster Live 1024 soinu tarjeta • FourPointSurround™ bozgorailuak
- CD Creative 48x • HD 6,4 Gb.

PTA.
184.900
214.484 PTA. BEZ BARNE

Con DVD 6x +
MPEG-2
Tarjeta
deskonpresora
199.900 PTA.
231.884 PTA. BEZ BARNE

HILABETE HONETAN BEEPen
SARRERAREN %50
OPARITZEN DIZUGU
FORMULA 10 FINANTZATZEKO
SISTEMAREKIN
SARRERA 10.724 PTA.
+ 21.448 PTA. 10 KUOTA

PROMO



GURE ESKAINTZA
BEREZIEI
ONURA ATERA IEZAIEZU

**GALDETU
ZURE DENDAN
GRABADORETAN DUGUN
ESKAITZA
BEREZIAGATIK!**



BEEP
CD-74'

145 PTA.
BAKOITZA
168 PTA. BEZ BARNE



BEEP
CD-80'

ERAMAN 3 - ORDAINDU 2
AURREZTU 255 Pta.
255 x 2 = 510 Pta.
592 Pta. BEZ barne



BEEP
CD-RW

ERAMAN 3 - ORDAINDU 2
AURREZTU 275 Pta.
275 x 2 = 550 Pta.
638 Pta. BEZ barne

U N I T A T E M U G A T U A K

BEEP URRETXU DENDA BERRIA



Ipeñarrieta, 4 baxua. T.: 943 72 92 11

INTERNET:
<http://www.datalogic.es>

AURREZTEKO ELKARTURIK

Mineralogia eta paleontologiari buruzko XII. astea



Aurtengo urrian ere, eta badira jada 12 urte, Mineralogia eta Paleontologia astea izango da Urretxun hilaren 23tik azaroaren 1era bitartean. Urtetik urtera hazten joan den aste honen sortzaile eta bultzatzaileak duela gutxi hil den Nicasio Aguado eta Kultur Etxeko langileak izan ziren. Nicasiok betidanik izan zuen mineral eta fosilekiko zaletasuna eta urteen poderioz bilduma aparta lortu zuen. 1987an, Kultur Etxea egiten ari zirela ikusirik, bere bilduma oinarri zela Kultur Etxe berrian museoa zabaltzea proposatu zion udalari. Udalak ideia gogo onez hartu zuen eta handik gutxira museo honek ateak ireki zituen.

Baina museoa ezagutarazi beharra zegoen jendea bertara hurbil zedin. Hau dela eta, garai hartan Gipuzkoan antolatzen zen mineral erakusketa bakarrera joan ziren Urretxuko museoko piezak erakustera. Bertan zenbait mineralazalekin harremanak izan eta herrira gonbidatu zituzten. Honela sortu zen lehenengo

urteetan Ederrena zaharrea izan zen Mineralogia Astea. Antolatzaileen helburua xumea zen: Urretxuko bilera zaletuen topagune bihurtzea. Horretarako erakusketaz gain, astean zehar diapositiba emanaldiak izaten ziren eta larunbat goizean txangoa egiten zuten mineral bila.

Egun Gipuzkoan antolatzen den mineralogia feria bakarra da

Mineralogia eta Paleontologia astean parte hartzera etorri direnek, beti doan egin dute eta lehenengo urte haietan gainera sekulako hotza jasan behar izaten zuten Ederrena zaharrea (txanda egiten zuten estufaren ondoan berotu ahal izateko). Udalak beraien borondate ona eskertzeko larunbatean hamaiketako antolatzen du Kultur-Etxeko museoan eta bertan eskerrak ematen zaizkie denei. Hala ere,

Urretxuko mineral astean egoteak ospea ere eskaintzen die partaideei. Donostian izaten zen feriak porrot egin zuen eta orain Urretxukoa da Gipuzkoan antolatzen den bakarra. Honek mineralogia asteari indarra eman dio eta azken urteotan pilotaleku berria ez dago herrira etorri nahi duten guztientzako adinako leku. Hau dela eta, Urretxura urte gehiagotan etorri direnek lehentasuna dute eta udala 2.500 pezeta kobratzen hasi da metro karratuko.

Hala ere, argi dago partaideei herrira etortzea komeni zaiela. Esan bezala, Urretxuko feriak ospea ematen du. Baina, honetaz gain, salmenta bidez diru asko lortzeko aukera ere badute. Harri landuek erakusmahaiaren %20a soilik bete dezaketen arren, saldu ahala berriro pitxi berriak salgai jar ditzakete. Bestalde, euren bildumak aberasteko edo pitxiak egiteko lehengaiak erostera jende asko hurbiltzen da Urretxura. Zenbait pieza partikularren esku egotea debekatua dago eta antolatzaileek hauek erakusgai jartzea

debekatzen dute. Hala ere, badaude, ez dute partaideen arteko elkartrukeak kontrolatzeko modurik. Behin Donostiako Aquariumetik balio handiko fosil bat lapurtu zuten eta Urretxun salduko zen zurrumurrua zabaldu zen. Ertzainek kontrol zorrotza egin zuten arren, ez zuten fosil hura aurkitu.

Argi dago Urretxuko mineral astea oso topagune garrantzitsu bihurtu dela eta hastapeneko urte haietatik hona gauzak asko aldatu dira. Egun 4 sailetan banaturik dagoela esan daiteke: ikusentzuzko ikastaro eta hitzaldiak, txangoa, feria eta haurrentzako ekintzak. Haurrentzako ekintzen helburua gazteei mineralen mundua erakutsi eta beraiengan zaletasuna sortzea da. Ekintza hauen artean, izar nagusia meategi artifiziala da. Lehenengo urteetan herriko zenbait gaztek eraikitzen zuten meategia Avenidan, baina euria egiten bazuen busti egiten zen. Gainera larunbat gauetan bikote batzuek bertan sartzea gogoko zuten eta hurrengo goizean garbitu beharra zegoen.

Aurten haurrentzako ekintzak Gernikako Arbola plazan kokatuko dira eta mineralen munduan murgildu eta zaletasuna hartzeko aukera izango dute. Izan ere, zaletasuna zabaltzea eta museo bizi-rik mantentzea dira Mineralogia Astearen bi helburuak. Ezin da esan lortu ez denik: erakusketa aretoa museo bihurtu da eta urteen poderioz bilduma are gehiago aberastu da. Museoak Euskal Herriko eskola ezberdinetatik etorri diren haurren zaletasuna bultzatu du eta hau da Nicasio Aguadok urte askotan egindako lanaren truke jaso zezakeen saririk onena.

(Egitaraua aldizkariko 2. orrialdean).



Arrakasta itzela izan ohi duen txangoa

Mineralogia eta Paleontologiari buruzko Astearen barne arrakasta handia duen ekintza bat txangoa da. Beti mineralogiko-kulturalak izan dira eta natura errespetatzea funtsezko legea da. Lehenengo urteetan Urbasara joaten ziren eta bideak egiteko altxatutako lurrian bilatzen ziren mineralak, ondorengo urteetan meategietako zabortegietara joan dira, beti ere natura ez kaltetzeko helburuaz. Txangora joateko 3000 pezeta ordaintzen dira eta diru honekin bazkaria ere ordaintzen da.

Urtero autobusa Gipuzkoa osotik etorritako mineralzaletan betzen da eta zenbait urtetan bi pisutako autobusa ere jarri dute. Baina jendea jatorriko tokitik dexente urruntzen denez, autobus arrunta nahikoa zela erabaki zen. Behin, adibidez,

Gasteizko pantanora joan ziren euri gutxi egin zuen urte batetan eta pantanoaren ur maila oso baxua zenez, ur azpian egon ohi diren mineral asko topatzea erraza omen zen. Egun hartan euria hasi zen eta jendea blai eginda jarri zen. Bai euriagatik, baita urtegiko uretan mineral bila dexente murgildu zelako ere. Mineral bila joatea perretxiku bila joatearen antzekoa omen da: hasieran ez da tutik ere ikusten, baina ohitura hartu eta ikasi orduko errazago topatu eta bizioa bihurtzen omen da. Mineralik topatzen ez zuten txango batetan jendea aspertzen hasi orduko Javier Aguadok poltsikotik bat atera eta bertan topatua zela sinestarazi zion jendeari. Animaturik jendeak lanari ekin zion berriro ere eta ez zuen inork amore eman nahi izan bazkaltzeko ordua pasa ondoren ere.

“Iparragirre pastoralala Urretxun antzeztea gustatuko litzaiguke”

Irailaren 26an eta urriaren 2an Zuberoako Urdiñarbe herrian Etxahun Iruri olerkariak idatzikato “Iparragirre Pastoralala” antzeztu zuten bertako herritarrek. 1980. urtean eskaini zuten lehenengo aldiz honelako emanaldia. Aurten, Pierra Bordazarre, Etxahun Iruri gisa eza-

gunagoa, hil zela 20. urtea bete dela aitzaki hartuz, pastoralala antzeztea erabaki dute Bil Xokoa Kultur Elkarteko kideek. Jean Mixel Bedaxagar kantaria aritu zen Joxe Mari Iparragirreren paperean eta berak ondorengo galdarak erantzun zizkigun.

Gustura al zaudete eskainitako emanaldiarekin?

Bai, oso gustura gaude. Izugarrizko lana izan da baina merezi izan duena. Sei hilabetez jardun dugu entsaiotan, gauez egin izan ditugu, bakoitzak bere lanak bukatu ondoren. Meritu handia izan du bertako jendeak. Dinamika polita sortu da taldean, giro polita izan dugu, irri asko egin dugu eta ongi aritu gara.

Zenbatek hartu duzue parte pastoralean?

70 lagun inguru aritu gara. Guztiak Urdiñarbetarrak. Angela, Iparragirren emaztea antzezten duen gaztea ezik, bera Askaingoa izan arren Urdiñarben bizi da egun.

Zenbat denboraz aritu zerate hau guztia prestatzen?

Martxoan hasi ginen entsaiuekin. Hala ere bi nahigabe izan genituen taldean. Taldekide batek eritasun larria izan zuen eta beste kide gazte bat hil egin zen. Hau dela eta hilabete batzuz bertan behera utzi behar izan genituen prestaketa lanak. Serioski maitzean hasi ginen. Guretzat lanik zailena zortzikoaren erritmoa hartzea izan da. Zuberoan ez gaude zortzikoan kantatzen ohituak eta belarria erritmo horretara egitea izan da zailena.

“Urdiñarbeko 70 lagun inguruk hartu dugu parte”

Ba al duzue “Iparragirre Pastoralala” Urdiñarbetik kanpo antzezteko asmorik?

Pastoralala hau Urdiñarbetik kanpo berehala antzeztea nahikoa zaila izango litzateke,



partaide asko nekazariak direnez, garai honetan lan handia baitute artaldeekin. Baina aurrerantzean gustatuko litzaiguke gure herritik kanpo emanaldiren bat egitea eta hegoaldeko herrietan pastoralala zer den erakustea.

Urretxura etortzeko asmorik ba al duzue?

Plazerra handia izango nuke neronek eta baita talde guztiak ere. Benetan polita

izango litzateke guretzat Iparragirreren sorlekuan bertan pastoral hau antzeztu ahal izatea, pastoral honetan Jose Mari Iparragirreren bizipenak kontatzen baitira. Bere bizitzaren joan etorriak azaltzeaz gain, bere abestiak berak idatzi bezela, gipuzkeraz alegia, kantatzen dira. Gu zubereraz hitzegiten ohituak gaudenez, zaila egin zaigu abesti hauek ikastea, eta gustura asko kantatuko genituzke urretxuarren aurrean beraien laguntzarekin.



Etxahun Iruri urdiñarbetarrak idatzitako pastorala duela 19 urte antzeztu zenuten lehenengo aldiz, aktoreak orduko berberak al zerate?

Aktore gehienak duela 19 urte aritu ginen berberak gara, orduan parte hartu genuenok jardun gara oraingoan ere. Hala ere, haurren eta aingeruen papera antzezteko herri-tar gazteago batzuen laguntza behar izan dugu. Gazte hauek gogo onez parte hartu dute pastoralean eta oso ondo aritu dira beraien lanean.

Publikoaren partehartzea handia izan zen emanaldian.

Asko hunkitu gintuen publikoaren jarrerak, ohol-tza gaineran ere antzeman genuen ikusleak emanaldia gustura jarraitu zuela.

Pastoralak Zuberoan besterik ez dira egiten egun.

Zuberoan bakarrik jarraitzen dugu pastora-lekin. Pastoralak oso zaharrak dira hala ere, Frantzia Erdi Aroan hasi ziren antzezten, *tragedia* izenarekin.



CHIARA

**Etixerako lentzeria
Oparitarako gaiak**

Labeaga, 33-C behea ☎ 72 51 18

**Madaia plazoletan
20700 URRETXU**

TABERNA



**Gaur eta
JATETXEA**

Piedad kalea, 14 ☎943 72 08 19
ZUMARRAGA



belardenda

Belardenda, dieta eta errejimen
elikadura
Labeaga 31 ☎943722780
URRETXU

Legazpi, 5
☎ 72 11 55
Zumarraga

Labeaga, 43
☎ 72 16 81
Urretxu

Kale nagusia, 5
☎ 73 04 19
Legazpi

*** ZURE ESTUDIOA ***

GOSARIETAN BEREZITASUNA
GOIZEKO 6etan ZABALTZEN DUGU



**OSINALDE
KRUASANDEGIA
TABERNA**

S. Esnaola, 26 ☎943720306
ZUMARRAGA

Iñaki Casas, Chileko atletismo mundialerako bidean

Iñaki Casas urretxuarrak 17 urte besterik ez duen arren, atletismo munduan jada lorpen handiak ditu. Abiadura-lasterketeiduela urte eta erdi soilik ekin zion, baina 100 metrotako Estatuko txapelketa irabaztea lortu du aurten eta Polonian ospatu den mundialean ere izan da. Hala ere, argi du mundu horretan aurrera egitea zein zaila den eta patxadaz lan egin nahi du. Fisioterapia ikasi eta ia egunero entrenamenduei gogor ekitea dira bere asmoak.

Noiz eta nolatan hasi zinen atletismoan?


Sei urte daramatzat jada. Krossean hasi nintzen, baina oso gaizki ibiltzen nintzen. Lagunekin aritzen nintzen eta oso giro ona zegoen, baina beti azkenetakoa izaten nintzen. Duela urte eta erdi Jabi Gómez entrenatzailearekin hasi nintzen eta abiadurara pasa nintzen. Beti izan dut gustukoa abiadura lasterketak, baina 10 urterekin lagunekin egon nahi izaten duzu.

Zer nolako entrenamenduak burutzen dituzu?

Ostegunetan izan ezik, asteko gainontzeko egunetan entrenatzen dut. Gimnasio ariketak, abiadura serieak... egiten ditut. Orain aurrendenboraldian gaude eta indarra lantzen dugu. Beranduxeago korrika gehiago egiten hasiko gara eta denboraldian gehienbat lasterketetan soilik aritzen gara. Gainontzeko egunetan atsedean hartzen dugu eta asteko egun batean gogor entrenatu.

Gogorra al da atletismoan aritzea?

Neguan bai. Hemen oso eguraldi txarra egiten du eta elurrarekin, euriarekin... Argixaon entrenatzea ez da goztoa izaten. Ezin diot entrenatzeari utzi eta Argixao itxi-



ta badago, hesiaren gaintetik pasa eta lanari ekin behar izaten diot.

izan naiz; bai kanpoko txapelketetan zein estalitakoetan.

“Carl Lewisen antzera korrika egiten dut: gaizki xamar atera eta gero errekuperatu”

Hain gogorra izanda, zeintzuk dira alde onak?

Txapelketa ezberdinetara joanez, leku ezberdinak ezagutu eta lagunak egiteko aukera izaten dugu. Lehen urtean, oraindik kadete mailan nengoela, Mallorcan ospatu zen Espainiako txapelketarako minima lortu nuen. Honela Mallorcara doan joateko eta bertako giroaz gozatzeko aukera izan nuen. Bestalde, Valentzian, Madrilen... ere

Zeintzuk dira zure lorpenak?

Mallorcan bosgarren egin nuen eta errelebutan Euskadirekin bigarren. Zaragozan, estalian, oso gaizki aritu nintzen, gaixo bainengoen. Aurten Eibarren izan den Espainiako txapelketa irabazi dut. Euria egin zuen eta horrek lagundu egin zidan, ohituta bainago. Aurten Polonian izandako mundialean izan naiz errelebuta korritzen. Bakarka korritzeko aukera nuen, baina nire adineko onenek nik baino segundu erdi azkarrago korritzen dute eta bakarka ez aritzea erabaki nuen. Beste herrialde batzuetan nire adinarekin jada atletismoan soilik aritzen dira eta hortik bizi dira. Niretzat, ordea, atletismoa zaletasuna da. Hori bai, zenbat entrenatzen dugun kontutan izanda, nahiko serioa.

Zein da zure markarik onena?

Espainiako txapelketako finalerdietan 100 metroan 11'02ko denbora egin nuen, haizea kontra nuela. Entrenatzaileak egun 10'90 egiteko gai naizela uste du. Mundialetatik itzultzean marka hobetzeko saiakera egiteko asmoa nuen, baina nekatuta etorri nintzen eta festarako gogoia nuen.

Ze ezaugarri dituzu?

Teknikoki nahiko ona naiz eta entrenatu ahala hobetzen ari naiz. Indarra errazago hobetu daiteke soinketa ariketen bidez. Irteerak nahiko gaizki egiten ditut, oso urduria bainaiz. 40 metro igaro ondoren erreboluzionatu eta onena ematen dut. Beste askok 80 metro egin ondoren onena emana dute eta nik ez. Carl Lewisen modura korritzen dudala esan daiteke... sinatuko nuke oraintxe bere marka egitea!

ten die. Sevillan egin zuen errekorra berak hobetzen ez badu, beharbada ez du beste inork egingo 50 urtetan. Teknikoki ez da aparta, baina indar izugarria du.

“Chilen ospatuko den munduko txapelketan parte hartzea espero dut”

Txuria izanda, ez al da pixka bat frustrantea abiadura lasterketetan aritzea?

Pixka bat bai... txuria izanda ezinezkoa da munduko txapelduna izatea. Hala ere, aurtengo mundialetan 100 metroak hamar segundu eskaxetan egiten dituen australiar batek domina lortzeko aukerak zituen, baina urduritasuna zela eta bi irteera txar egin eta ezin izan zuen finala korritu. Harrigarria izango litzateke txuri batek domina lortzea. Beltzek muskulu-zuntz konpaktuagoak dituzte eta horrek abantaila ematen die. Inguru honetan bizi diren beltzek ere dohain bereziak dituzte. Legazpin bizi den mutil kubatar batek, batere entrenatu gabe, jabalina jaurtiketan infantil mailako Espainiako errekorra egin zuen.

Zer txapelketatan parte hartu behar duzu aurtengoa?

Pista estaliko txapelketa Valentzian ospatuko da martxoa amaieran. Joango naiz, baina ez naiz oso prestatuta egongo oraindik. Nire



100 metrotako lasterketan soilik aritzen al zara?

Luzera saltuan ez naiz aritzen, oso teknikoa eta bizkarrarentzat oso gogorra baita. 200 metroan, ordea, pare bat aldiz aritu naiz eta Euskadiko txapelketa irabazi nuen. Izan ere, bihurgunea nahiko ondo hartzen dut.

Aurtengo Sevillako mundiala gustura ikusiko zenuen...

Bostetan telebista jarri eta hamaikak arte telebista aurrean izaten nintzen. Froga guztiak atsegin ditut. Gainera froga ezberdinetan aritzen diren lagunak ditudenez, egunero beraien entrenamenduak ikusten ditut eta beraien frogen nondik-norakoak ezagutzen ditut. Hemen iraupen-lasterketei ematen zaie garrantzia eta gainontzekoetan askoz jende gutxiago aritzen gara. Jaurtiketetan, abiadura-lasterketetan... kirolari izarren bat egongo balitz, beharbada ohiturak aldatuko lirateke.


Ba al duzu bereziki atsegin duzun atletaren bat?

Gaur egun Maurice Green onena da, baina Ato Boldon ere asko atsegin dut. Michael Johnson, berriz, atleta aparta da: txapelketak ondo prestatzeko diru asko eskeintzen duten Grand Prixeko lasterketei uko egi-

prestaketa kanpoko txapelketetara bideratu dago eta datorren denboraldiko Estatuko txapelketa Santanderren irailean ospatuko denez, nire prestaketa ere aurtengoa atzeratu egin dut. Mundiala Santanderrekoaren ondoren izango da Chilen eta bertara joateko gogorlan egingo dut. Aurtengoa lehenengo urtea izango dut junior mailan eta ez da erraza izango. Bertara joateko beharrezko marka lortu daiteke, baina federazioak gehiago eskatzen du, gastuak murrizteko edo...

Nora uste duzu heldu zaitzkeela?

Ez dakit. Nire asmoa gogor entrenatu eta hobetzea da. Helburu zehatz bat jartzea, 10'50ean korritzea adibidez, txarra izan daiteke. Ez da ona norberaren buruari gehiegizko presioa jartzea. Bilboko mutil batek gogorlan egin eta junior mundialean 5. izatea lortu zuen 10'53ko denbora eginez, baina ordutik hona ez du hobetzerik lortu. Oso gaztetan lan gogorregia eginez, progresioa gelditu egiten da. Nire asmo bakarra fisioterapia ikasi eta unibertsitateko taldean korrika egitea da. Oso nota altua behar da, baina atletismoan ondo arituz gero federazioak diru laguntza emateaz gain unibertsitatara nota alturik gabe joateko aukera ematen dizu.



Jesús Pérez

Urte askotan merkatal administrazioan eta salmenta munduan aritu ondoren, duela hiru urte Antioko elizako arduradun lanetan hasi zen. Lehenago ere Zumarragako parrokian lanean aritua zen eta azken 18 urteetan sendotza monitore izan da. Parrokiko koruan kantuan aritzen da eta duela urte batzuk "Kareletik" eta "Hamaseigarrenean aidanez" filmetan ere parte hartu zuen. Antion oso gustura dabil, baina lerro hauen bidez ezkontzetara joaten direnei arrosa eta bestelako lekak ez botatzeko eskatu nahi die.

-Zer izan nahi zenuen umetan?

Gizartearentzat onuragarria izan nahi nuen.

-Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Irakurri, zinera joan eta lagunekin hitz egin.

-Bizitzeko toki bat?

Oso gustura nago bizi naizen tokian.

-Antzerkia ala zinea?

Biak berdin atsegin ditut, %50ean.

-Gustuko aktoreak?

Jack Nicholson eta Katherine Hepburn.

-Imanol Arias ala Patxi Bisquert?

Patxi Bisquert ezaguna dut, baina Imanol Arias ere oso ona da. Biak dira onak.

-Filmak zinean ala telebistan?

Zinean.

-Musika jotzeko, kantatzeko, dantzatzeko ala entzuteko?

Gauza bakoitza bere momentuan.

-Musika gregorianoa ala bakalaua?

Martxarako bakalaua, lasai egoteko gregorianoa.

-Zer moduzkoak dira egungo gazteak?

18 urte daramatzat monitore lanetan eta ez dira asko aldatu. Oraingoak zintzoagoak dira, baina errespetu gutxiago dute.

-Eta monitoreak...

Gorputz eta arimaz aritzen dira lanean, batzuetan gehiegi, eta esperientzia handia dute. Urte gehiegi daramate lanean.

-Nongo bisitariak hurbiltzen dira Antiguara?

Kataluniarrak eta madrildarrak gehienbat eta inguruetako eliztarrak egunero.

-Nor gustatuko litzaizuke ezagutzea?

Burua bere lekuan duen edonor.

-Norekin pasatuko zenuke asteburu bat?

Ezaugarri berbera duen edonorekin.

-Ilehorriak ala beltzaranak?

Beltzaranak.

-Egindako azken oparia?

Betaurreko batzuk.

-Eta jasotakoa?

Gorbata bat.

-Data bat?

lazko urria, Parisen izan ginenekoa.

-Neska izen bat?

Maria, bere osagarriekin.

-Zein egunkari irakurtzen duzu?

El Diario Vasco.

-Gustuko telebista saioa?

Informe Semanal eta filmeak.

-Bereziki gorroto duzuna?

Lehiaketak.

-Liburu bat.

Agatha Christieren eleberriak.

-Filme bat.

El resplandor.

-Abesti bat.

Oi Ama Euskal Herria.

-Soinu bat.

Bibolinarena.

-Usain bat.

Labandarena.

-Ukitzeko...


Giza azala.

-Janari bat.

Marmitakoa.

-Ura ala...

Ardo gorria.



URRETXU

OPTIKA-GABINETE AUDIOPROTESIKOA

Graduazioa-Audiometriak-Audiofonoen moldaketa-Begiko tentsioaren hartzea

Ipeñarrieta, 4 ☎943 72 09 07 Iparragirre, 1 ☎ eta faxa 943 72 59 68

PUBLIZTATEA

☎ 943 72 57 75



Gozatu udaz urte osoan zehar

 **902 123 456**
NaturGas, Euskadiko gasa



NaturGas



Sociedad de Gas
de Euskadi, s.a.

Grupo EVE

IKER

**SUKALDE
ERAKUSKETA**

FAGOR



Udala Enparantza, z/g

☎ 943 79 00 43

20500 ARRASATE

Ipeñarrieta, 5

☎ 943 72 50 75

20700 URRET XU

